

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresan hainbat funtsezko baliabide hartu beharko ditugu kontuan, eta atal honetan gutako bakoitzak egitasmoa aurrera eramateko eskaini dezakeguna zehaztu eta argituko dugu.

Hasteko, baliabide fisikoei dagokionez, gure zerbitzua aurrera eraman ahal izateko, hainbat material eta produktu desberdin eskuratu beharko ditugu. Gure zerbitzuari hasiera emateko eta aurrera eramateko ezinbestekoa iruditzen zaigu lehenik eta behin instalazio bat eskuratzea, hau da, lokal bat, non gure klaseak eman ahal izango ditugun. Zumarragako udalak Zelai Arizti kultur etxeko gela bat eskuratuko digu gure klaseak eman ahal izateko, hau da, ez dugu lokal bat erosi edo alokatu beharko. Bestalde, gelarako eta klaseak emateko beharrezkoa dugun materiala guk eskuratu beharko dugu, hau da, inbertsio bat egin. Nahiz eta aulkiak, mahaia, eta altzariak dagoeneko bertan egon beste hainbat gauza ere beharrezkoak ditugu, hala nola, arbel bat, klarionak, arkatzak, boligrafoak eta abar.



Baliabide finantzarioei dagokienez, gure zerbitzurako beharko ditugun altzari guztiak Zumarragako kultur etxeko lokalak eskainiko dizkigu. Beraz, horrenbeste material erosi behar ez dugunez, bakoitzak 1000€ gure poltsikotik jartzea erabaki dugu. Jarritako diru hau Urretxuko Kotoi paper-dendan inbertituko dugu ikasteko materiala eskuratzeko; horien artean klarionak edo arbel zurietan idazteko errotulagailuak, bolalumak eta arkatzak besteak beste.

Gure zerbitzurako oso garrantzitsuak dira giza baliabideak, izan ere, laguntza dedikatua eta pertsonala eskaintzen dugu. Honek hainbat ardura desberdin dakartza:

Hasteko, “irakasle lana” boston ardura izango da, izan ere, denok gaude prest eta irrikaz ikasle hauei laguntza bat eskaintzeko. Lan hau egiterako garaian, nahiz eta guztiok lan honetarako prestakuntza eta ezagutza bera izan, koherenteena irakasle bakoitzari ikasle multzo bat finkatzea da. Horrela, ikasleen jarraipen zehatzago bat lehenesten eta bermatzen dugu.

Horrekin lotuta, irakasle bakoitzak ikasle jakin batzuk izango dituela kontuan hartuta, ikasle bakoitzaren gurasoekin harremana mantentzea dagokion irakaslearen ardura izango da.



Beste ardura garrantzitsu bat ordutegiak zehaztea izango da, eta hori egiteaz Libe eta Ane arduratuko dira; izan ere, oso neska arduratsuak eta ordenatuak dira, lan honetarako ez dago beraiek baino hobeagorik. Beraien lana bezeroekin harremanetan jarritz ordutegiak finkatzea eta ikasturtea antolatzea izango da.

Elkarteekin harremanetan jartzea gure enpresarentzako funtsezko ardura bat da eta horretaz June eta Eider arduratuko dira, horretarako, gure zerbitzua aurrera eramaten lagunduko diguten elkarteekin harremanetan arituko dira. June eta Eider oso pertsona trebeak baitira jendearekin harremanetan jartzen eta komunikatzen.

Finantzak eramateaz eta kontrolatzeaz berriz Olaia arduratuko da. Zenbakiekin eta kalkuluekin oso ondo moldatzen denez, gure taldeko aproposena baita lan hau burutzeko.

Funtsezko baliabideekin jarraituz, baliabide intelektualei dagokienez, guk ez ditugu beharrezkoak izango gure egitasmoa aurrera eramateko, izan ere, ez dugu gure ideia patentatu beharrik. Gure ideia ez denez objektu fisiko bat, baizik eta zerbitzu bat, gure ustez ez dago patentatu beharrik.

